



Palestinaren aldeko margoketa bat egiteagatik, 1.600€ko isuna jarri diote lagun bati

AHOTSA/LA HAINE :: 15/06/2024

Ostegunean epaitua izan zen Castejongo CAF-Trenasan egindako protestarengatik.

Ekainaren 13an lagun bat epaitua izan zen Castejongo CAF-Trenasa lantegiaren atarian egindako protesta batean margoketa bat egiteagatik.

“CAFek Israelekin eta bere kolonizazio-prozesuarekin duen konplizitatea” salatzeke egindako ekimena izan zen hure, eta beste 12 lagun izan ziren deklaratzera deituak duela gutxi, tartean bi kazetari. Atzokoan, epaitutako pertsona isuna eta CAF-Trenasari kalte-ordaina ordaindu beharra ezarri diote: guztira 1.600 eurotik gorako zigorra.

“Prozesu-errepresibo honen ostean, adierazi nahi dugu Palestinarekiko elkartasuna kriminalizatu eta errepresioaren bidez ixilarazi nahi duten instituzio eta enpresek aurrean izango gaituztela. Izan ere, margoketak garbituko dituzte, baina ez dute inoiz haien aurpegia garbituko”, salatu dute Palestinarekin Elkartasuna ekimenetik. Larunbata honetan Beasainen CAFek akziodunen batzarra egin du, eta horren harira *protesta bat antolatu dute* goizeko 11:15etan lantegiko hirugarren dibisioko sarreraren parean.

<https://eh.lahaine.org/palestinaren-aldeko-margoketa-bat-egiteagatik>